

BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1996, urtarrilak 19


JESUS MARI NARVAEZ

Fosil bildumarik onenetarikoa



Erakusketa jurasikoa

OPEL




TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa)
Tfnoak: 79 05 86

PEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.

UDAL



EUSKALTEGIA

**BERGARAKO
UDAL EUSKALTEGIA**

**Zabalotegi, 13 BERGARA
Telefonia eta faxa: 76 44 53**

MATRIKULA ZABALIK

ALFABETATZE ikastaroa
(otsaila-ekaina) 120 orduko
ikastaro berezia

EUSKALDUNTZE eta EGA
ikastaroak (otsaila-ekaina).
Plazak dauden taldeetan
integratzeko.

MATRIKULALDIA

Urtarrilaren 22tik
31ra arte

**BULEGO
ORDUAK**

Goizez: 8.30-12.30
Arratsaldez: 14.30-18.30

**16 URTEZ
GORAKOENTZAT**

Bekatzeko sistema eta diru
laguntzak ditugu.

ROTALDE JAUREGIA
570 Bergara
noa eta Faxa: 76 03 97

argitaratzailea:

ARDUN Elkarte.
asterreka, 13 Bergara.
noa eta Faxa: 76 08 19

zuzendaria:

eko Azkarate
redakzioa:
uardo Mendibil
el Elkoroberezibar
ne Larrañaga

laketazioa:

eko Azkarate
publizitatea:
ex Azkarate

argipidetzak:

orka Elortza
estuen zuzenketak:
estepan Plazaola

aripi Laskurain
ex Labaien

redakzio kontseilua:

orka Elortza
guel Angel Elkoroberezibar
ex Labaien

omikiak:

itor Rodriguez
orka Ortega & Jon Alvarez
ex Ugalde

anaketa:

antxangorri taldea
irada:
000 ale.

primategia:

ertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

copyright:

BERRIGARA
lege gordailua:
S 50/91

ISSN:

030-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Leharlitzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

EBA ALBERDI

Jarduneko dinamizatzailea

- Zenbat lan jaso dira Jardunek antolatutako amodiozko gutunen lehiaketan?

- Oraingoan 172 lan aurkeztu dira. Entregatzeko epea bukatu da dagoeneko baina oraindik korreoz gutun gehiago jasoko ditugu seguruen. Iaz 200 inguru jaso ziren eta aurtean ere kopuru horretan ibiliko gara.

- Nondik bidali dituzte lan gehien?

- Iaz bezala Gipuzkoatik jaso dira gehienak, 121 guztira (horietatik 52 bergararrenak). Bizkaiatik 39 lan bidali dituzte, Arabatik eta Nafarroatik 5na eta, Lapurditik berriz, beste 2. Emakumeak izan dira nagusi (102) eta adinari dagokionez, 14 urtetik 20 urtera arte 103 lan, 20-30 urte bitartean



46 gutun eta hortik gora beste 8.

- Nortzuk osatuko dute epaimahaia?

- Arantzazu Loidi kazetariak, Patxi Zubizarreta eta Josean Sagastizabal idazleek eta Asier Serrano olerkariak. Irakurle gazteek emandako saria Bergarako hiru ikaslek erabakiko dute.

"Amodiozko gutunen lehiaketan emakumezkoenak dira karta gehienak"

I T U R R I O N E T I K

Agarreko garaixean onddoak desagertarazteko proiektua

Pasa den urrian Agarreko garaixearen behealdean agertutako onddoen arazoa konpontzeko lanetan hasiko da datozen egunotan Mungiako Tecma enpresa. Onddoz kutsatuta zegoela ikusita, garaixearen inguruko ikerketa burutu zuten Iñaki Aspiazu arkitektoak eta Xabier Aranburu udal museologoak. Orain, onddoak desagertarazteko Tecma enpresak tratamendu kimiko bat martxan jarriko du. Oraindik ezin daiteke jakin tratamendu horrek zenbat iraungo duen baina baliteke tratamendu luzea izatea. Tecma enpresako arduradunak laister etorriko dira inguruko beharrek lanak zehazteko.

E S A N D U T E

"Jakina da Eikarriren pluraltasunean, ezker abertzaleko sentsibiltatea oso ordezkatuta dagoela, ausartuko nintzateke gehiengo dela esatera eta baita Herri Batasuneko berea ere. Edo esango didate orain Herri Batasunak Elkarrin dituen kideak (tartean kargu politikoak direnak) ezker abertzaleko partaide ez direla?"

ALEX BARRUSO
Elkarriko kidea
EGIN

"Jokin Etxaniz pelotako unibertsitaterik onenean, Eibarko Astelenan doktoratu zen atzo [larunbatean]. 22-15eko emaitzak ezer gutxi esaten du aurrelari urdinak egindako lan bikainari buruz. Partiduko 69 minutuen ondoren, txalo guztiak, lau pelotarietatik, atzorarte, umileena zenarentzat izan ziren"

FERNANDO BECERRIL
Kazetaria
EL DIARIO VASCO

**SPECIES**

Ostirala: 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).

**NADIE HABLARA DE NOSOTRAS...**

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

**LAMERICA (J.B.)**

Osteguna: 20.00

Zinea

▼▼ **Roger Donaldson** (*No bay salida*) zuzendariaren filme honetan, **Ben Kingsley, Michael Madsen** edota **Forest Whitaker** aktore ezagunak dira errepartoan. 20 urtetan gizakiaren inguruko informazioa espaziora bidali ondoren, erantzun bat jaso da. Gizaki indartsu eta azkarragoa sortuko du *Fitchek* (**Kingsley**) baina bere esperimenduak eskutatik alde egingo dio...

▼▼ **Agustin Díaz Yanesek** kritikaren eta publikoaren oneritzia jaso du bere lehen filmearekin. Aurtengo Donostiako Zine Jaialdian zuzendari eta aktorea (**Victoria Abril**) onenaren sariak eskuratu zituen. Filme gordin honetan emakume batek bere bizitza berreraikitzeke egin behar duen lana kontatzen zaigu. **Federico Luppirekin**.

▼▼ Bi italiar enpresarik Albaniako zapata fabrika bat erosi ondoren, bertako sozio baten partaidetza beharrezkoa izango dute. Zahar gaiso batekin tratua egin ondoren, honek alde egingo du, Italiatik Amerikara bidean dagoela uste duelarik. **Gianni Amelior**en filme hau iazko onenarikoa izan omen da kritikaren iritziz.

Deiak

▼ **Tute txapelketa** jokatu da bihar larunbata, urtarrilak 20, 4retan Batzokian. Izen-ematea Batzokiko tabernan (1.500 pezeta bikote bakoitzeko).

▼ **Odol ateraldia** egingo da asteazkenean, arratsaldeko 7etatik aurrera Seminarioko baxuetan. Odol emaleen elkarteak parte hartzeke dei egiten du.

▼ **Eskulanak**. Izaskun Saiz eta Edurne Uribesalgoren ikasleen lanak Kultur Etxean. Astebukaeran 12etatik ordubietara eta 6etatik 8etara.

▼ **Eluska Zabalo Monje** margolariaren erakusketa Naikari tabernan.

Ogia▼ **Igandea 21:** Konde.**FARMAZIAK**

- ▼ **Ostirala 19:** Camacho/Azkoaga.
- ▼ **Larunbata 20:** Puy/Español.
- ▼ **Igandea 21:** Puy/Corcuera.
- ▼ **Astelehena 22:** Guallar/Trizar.
- ▼ **Asteartea 23:** Estella/Amezua.
- ▼ **Asteazkena 24:** Mozos/Ruiz.
- ▼ **Osteguna 25:** Camacho/Morales.

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

MUGICA**GOXOTEGIA**Artekale, 3
☎ 76 10 34

- Pastelak
- Errellenoak
- Tostoiak
- Tartak

Fosilen erakusketa

Jesus Mari Narváezekin berriketan

Jesus Mari Narváez 51 urteko bergararrak fosil bilduma aberatsa eta interesgarria landu du azken 20 urteotan. Orain, bere lanaren fruituak ikus ditzakegu urtarrilaren 28ra arte Udaletxe-ko Pleno aretoan.

- Noiz hasi zinen fosilak batzen?

- Urte mordo daramat lan horretan, 20 urte inguru. Eskaladan edota espeleologian ibilitakoa naiz eta horrek basoak eta mendiak ezagutzeko aukera eman dit. Horrela paretetan etabarretan fija-tzen hasten zara eta hortik dator zaletasuna. Lehen eskolan ez zegoen halakoak ezagutzeko aukerarik eta afizio honetan autodidakta izan naizela esango nuke.

- Non batu dituzu fosil hauek?

- Euskal Herrian bertan, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarrora egin-dako irteeretan. Andrak lagundu dit eta 3.000 pieza inguruko bilduma osa-

Antolatutako bisita gidatu batean azalpenak ematen ageri den Jose Narváezek 3.000 pieza inguruko fosil bilduma osatu du. Europako aberatsenetarikoa omen da.



tu dugu. Oraindik ere 5-6 urteko lana daukat piezak garbitzen bakarrik. Estatuan ez dut uste horrelako bildumarik dagoenik eta mundu osoan ere gutxi izango dira. Esate baterako anisocera deitutakoaren pieza osoa daukat eta horren aurkitzaileak ez dut uste pieza osorik daukanik. Ezta Madrileko Geominero museoan ere...

- Zein garaikoak dira pieza hauek?

- Garai ezberdinetakoak. Badauzkat orain dela 110 milioi urtekoak, kretaziko garaikoak. Prozesua nahiko luzea da. Garbitzen hasten naizenean fosila haitzarekin tapatuta egoten da eta apurtu baino lehen jakin egin behar da zelan atera. Askotan, terrenuen mugimenduen eraginez, piezak zatika ateratzen dira eta gero pegatu beharra dago. Gainera, sedimentoak garbitzeko prozesua hilabete-takoa izaten da eta ondoren klasifikazioa eta izen-

dapena datoz.

- Informazio asko jaso daiteke fosiletatik?

- Bai. Ez dira gordeta eduki behar, jendeari erakustea da onena, gure az-tarnen berri izan dezan. Gainera, paleontologiarekin interesatutako jendea gehitu daiteke honelako erakusketa ikusiz gero.

- Bildumarekin zer egin erabaki duzu?

- Onena museoren baretan uztea izango litzateke, patrimonio kulturalaren zati bat baita. Nik neuk Bergaran egingo den museoan geratzea nahi nuke.

"Bilduma hau Bergarako museoan geratzea nahi nuke"


FERNANDEZ



**Oihal puskak
Oihalak**

San Antonio, 3
☎ 76 22 93

Ibargarai, 2
☎ 76 53 22



**GAZTELU
BURDINAKI DENDA**

Mintegi, 1

Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50

BERGARA

Gazteok, kalea, herria... Borroka!

Eusko Jaurlaritzako Barne Sailaren orde-nupean euskal zoziologo talde batek "Gazte-ria eta Bortizkeriaren" inguruan eginiko lana dela eta, Bergarako Jarraiko militanteok, ordezkatzen dugun erakundearekin batera alde inplikatu garen heinean, ekarman batzu luza nahi dizkizuegu:

1. Javier Elzo soziologoak (lan taldearen buru moduan) ikerketaren inguruan emandako konklusio eta balorapen publikoen bitartez, euskal gazte abertzaleon prototipo alienizatu baten ideia saltzen saiatu dela, euskal gazteok inguratzen gaituen egoera soziopolitiko latz eta larria ezertarako kontutan hartu gabe.

2. Euskal gazteriaren jarrerak ez duela inongo oinarri patologikorik; gazteok aurrera eta fronte ezrberdinetan (antimilitarismoa, autogestioa, askapen nazionala, sexuala...) daramatzagun borrokak, gazte kontzientzi eta koherentzi batez bultzatzen ditugula, "demokrazia" izenaz deituriko sistemaren defizitak kaleratuz eta aldatu nahiaz.

3. Euskal Herriko kaleetan ematen diren istiluak (enfrentamenduak, sabotai ekin-tzak...) testuinguru politiko batean bakarrik uler daitezkeela, Euskal Herriak bere lurjabetasunaren alde Estatu Espainiarraren aurka daraman borrokaren markoaren barruan, alegia.

4. Arazo politikoa den neurrian, irtenbide politikoa behar duela; Ondorioz, Barne Sai-lak bultzatzen duen irtenbide errepresiboa

(erantzun poliziala, botere judizialaren gogorketa, Jarrairen aurkako kriminalizazio kanpainak, X eta Y...) ez duela irtenbiderik ekarriko: bai ordea, egoeraren tentsionamendu eta gordinketa.

5. "Pakezale" batzuen aldetik Botere judizialari zigorrak gogortzeko eginiko eskaera publikoa lekuz kanpo dagoela, gogorkeri gehiegia delako euskaldunok espainiar legez eta hauen ordezkarietaz epaituak izatea.

6. Euskal gazteria, kontsekuentzi osoz, argi eta garbi uzten ari dela Euskal Herriarekiko duen konpromezua; bai gozotasunean, eta bai garraztasunean ere.

BERGARAKO JARRAI

Gora Gonzalez, gora GAL

Berrigara 218. alea: "Amets bat: bakea. Miresten duzun politikari bat: Felipe González. Bakarrik sentitu zara inoiz Udaletxean? Ez, beti daukazu norbait ondoan".

Argi dauka Javier Cendoyak zer nahi duen eta norekin egon nahi duen herri hau aurrera eramateko.

Lehenik eta behin, bakea (hitz ederra zapaldutakoaren ahoan, hipokresi hutsa opresorearenean) González ondoan duela eta PNV eta, EAren babespean. Argi dago bere bakean ez diréla sartzen GALEk erahil zituen 28 euskaldunak, argi dago miresten duen itzal beltz hori dela gaur egun Euskal Herrian jasaten duen errepresio, hilketa eta ustelkeriaren buruzagi. Ez al da Cendoya

gogoratzen Barrionuevo, Vera, Danborenea, Roldan, Jauregik... zeinen menpean lan egin zuten?

Baina Cendoya lasai dago eta badauka arrazoirik lasai egoteko. Berak esan du beti daukala norbait ondoan, Arzalluz, Ardanza, Vito, Atutxa..., guzti honen zaindaria eta begirale zorrotzak. Hauen konplizitatea ezinbestekoa izan da heriotzaren hatzapar beltzak euskaldunen gainean jausteko.

Cendoya udaletxean egon den urte guzti hauetan, PSOEn babespean GALen bozeramale izan dugu. Oraindik gainera, GALen X famatua miresten duela esateko azala dauka eta ez du inongo erreparorik hau berresteko. Bakea errepresio hutsez lortu nahi badu zorritzarekin herri honen sufrimendua eperik gabe luzatzeko arriskua dago.

Azkenik, Berrigararentzat apunte txikitxo bat; Cendoya politikoa izaki, ez dut inongo aitzakiarik topatzen preso politiko bati, bergarar seme-alabaren bati elkarrizketa bat egin ez diezaiozuen, gai politikotan sartzen ez zaretela ez da beraz erabateko egia.

A.J.G. (NAN: 15.491.521)

Tiira biraka

GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



◆ **Bandaren kontzertua**

Udal Musika Bandak kontzertua eskeiniko du igandean 12.30etan Novedades aretoan. Programa honako hau izango da: *Get up* (Hadermann), *Athalia* (Mendelssohn), *Pocahontas* (Menken), *La leyenda del beso* (Soutuyo eta Vert) eta *El camino real* (Reed).

◆ **Errola ikusgai**

Astelehenera arte ikusgai izango dira Udaletxean hautesle-errola zerrendak.

◆ **Karnabaletako kartel lehiaketa**

Kultur Zerbitzuko karnabaletarako antolatutako kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea astelehenean, hilak 22, amaituko da. Irabazleak 50.000 pezeta eskuratuko ditu. Argibideak 76 44 46 telefono zenbakian.

HILDAKOAK

J. Antonio Elkororibe Lazpiur

Urtarrilak 15, 70 urte

Juan Azkarate Arretxe

Urtarrilak 15, 72 urte

Ines Isasmendi Unzueta

Urtarrilak 16, 93 urte

JAIOTAKOAK

Aste honetan Epaitegian ez dute jaiotakoen berrik jaso.



Asteazkenean jende ugari izan zen San Antonen. Meza ostean salda eta txorizoak banatu ziren.

San Anton auzoko jaiak ospatuko dira astebukaeran

Asteazkenean San Anton eguna ospatu zen eta, ohiturari jarraituz, meza izan zen San Antonen ermitan. Herritar ugari hurbildu zen bertara eta meza ostean guztiei salda, txorizoa eta ardoa banatu zitzaion. Astebukaera honetan jaiak aurrera egingo dute.

Bihar larunbata eguerdiko 12etan etxafleroak jaurtiko dira, ordubatean txikiteoa izango da eta 4retan, berriz, mus txapelketa jokatu da Zubiberri sagardotegian, bikote bakoitzak 1.000 pezeta ordaindu beharko

dituelarik. Arratsaldeko 6etan etxafleroak berriz ere, 7etan txikiteoa eta gaueko 9etan herri afaria Zubiberri sagardotegian.

Igandean, hilak 21, 8etan etxaflero jaurtiketa, 11etan meza izango da eta eguerdian, 12etan, San Antonen Nazioarteko Krosaren beste edizio bat jokatu da. Jarraian, salda, ardoa eta txorizoa banatuko dira eta erromeria izango da. 12.30etan herri kiroletako probak iragarri dira eta ordubatean kaskara jokua, haurrentzako jolasak eta txerri harrapatzea. Ordu-

bietan sari banaketa egingo da eta 5etan, jaiak amaiera emateko, etxafleroak jaurtiko dira.

Bestalde, gogoratuko duzue, Udalak Maltza-ga-Urbina autopistaren aurreproiektuaren aurrean, San Anton ermita babesteko alegazio bat aurkeztu zuen, aurreproiektuaren arabera autopista bertatik pasatzen baitzen. Oraindik ez da behin-behertarako proiektua onartu baina baliteke, azkenean, aipatutako autopista beste leku batetik igaro eta ermita lekuz aldatu beharrik ez izatea.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUGENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

◆ Jarduneko ikastaroak

Jardun elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu. Batetik malabarismo ikastaroa 11 urtetik 14 urtera bitarteko gaztetxoentzat, ostiraletan 17.30etatik 19.00etara. Prezioa, 1.500 bazkideentzat eta 2.000 gainontzekoentzat. Eta bestetik, gazteei zuzendutako narru ikastaroa, astearte edo ostegunetan 17.30etatik 19.00etara. Bazkideek 2.000 eta gainontzekoek 2.500 pezeta ordaindu beharko dituzte. Izen-ematea otsailaren 9an bukatuko da. Bestalde, begirale eta zuzendari ikastaroan parte hartu nahi dutenek lehen bait lehen eman beharko dute izena. Argibideak 76 08 19 telefonoan.

◆ Epaiketa

Haritz Egidazu preso bergarra Madrilen epaituko dute urtarrilaren 22, 23, 24 eta 25ean. Autobusez joateko izen-ematea Arrano tabernan egin daiteke.

◆ Beart-en irteera

Beart arte elkarteak Madrileko ARCO feria ikustera joateko irteera antolatu du. Irteera otsailaren 9an arratsaldeko 7etan egingo da eta itzulera otsailaren 11n, arratsaldeko 5etan. Alojamentua Trip-Rex hotelean izango da. Prezioa 12.500 pezetakoa da eta interesatuek urtarrilaren 22tik aurrera Kultur Etxean eman dezakete izena.

◆ Oldartzen

Oldartzen prozesuaren azken fasearen barruan, herri batzordea aukeratzeko asanblada izango da ostegunetan, hilak 25, 7etan Artatse elkartearen.



Bergarako haurrak baino egoera txarragoan bizi dira baina herrian batutako diruarekin umeentzako gela bat eraiki eta ekipatuko da Zairen. ARTXIBOA.

3. Mundurako solidaritate kanpaina arrakastatsuak

Betaurrekoak eta eskola baterako dirua batu dira


FISC Nazioarteko Elkartasunerako Fundazioak Gabonen inguruan egindako bi solidaritate kanpainen balorazioa egin du. Alde batetik, Zaireko Idwi irlan egin nahi den eskola berri baterako diru eskaera egin du FISC erakundeak eta, bestetik, Nikaraguarako betaurrekoak batu ditu.

Zaireko eskolaren kasuan, Bergaran 400.000 pezeta batu ahal izan da. Idwiko haur guztiek primaria deituriko ikasketak egin ahal dituzten 295 gela behar dira, baina gaur egun 198 gela besterik ez dira. Eskolaratze maila oso txikia da, 6 eta 11 urte bitarteko haurren %40a besterik ez baita eskolara joaten (neskatilen kasuan %10a bakarrik). Gela bat eraiki eta ekipatzeak 350.000

pezeta balio du eta Bergaran batutakoarekin gela bat martxan jarri ahal izango da.

Bestalde, Nikaraguaren aldeko kanpaina, 500 betaurreko inguru bildu dira azken astetan. Betaurrekoak pasa den urtarrilaren 8an bidali ziren Nikaraguara eta Bergarako Udalak, Astigarraga eta Donostiakoarekin batera, Granada hirian eraiki zuen Guapinoleko zentroko farmazian eta honen menpeko beste bi farmaziatan banatuko dira.

FISC erakundeak eskerrak eman nahi ditu Bergarako herritarrek azaldutako elkartasunagatik, "esku zabaltasun horrek adierazten baitu solidaritate indartsua errotzen ari dela gure gizartearen".



LIZAR
ALTZARIAK

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

MUJIKA

Jantxidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91


TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

Iñurrategi anaien diaporamak Bergaran



Felix eta Alberto Iñurrategi.

Asteartean, urtarrilak 23, Felix eta Alberto Iñurrategiren diaporamak ikusi ahal izango dira Novedades aretoan arratsaldeko 7 t'erdietatik aurrera. Iñurrategi anaiek Cho Oyu eta Lohtsera egindako espedizioan ateratako diapositibak erakutsiko dituzte. Muntaia oso ikusgarria omen da eta irudiekin batera Felix eta Albertoren komentarioak entzun ahal izango dira. Sarrera doan izango da.



Bittore Aierbek hainbat opari jaso zituen igandeko omenaldian.

Bittore Aierbe presoari ongi-etorria egin zitzaion igandean plazan

Igandean Bittore Aierbe presoari ongi-etorria eskeini zitzaion Bergaran. Aierbek lau urte eman ditu Estatuko hainbat kartzelatan eta igandean bertan aske utzi zuten. Bergarara heldu aurretik, Elgetan beste omenaldi bat jaso zuen, Aierbe El-

getan bizi baita. Ondoren Bergarako San Martin plazan bildutakoek ongi-etorri hunkigarria eskeini zioten. Txalaparta, dantzariak eta bertsolariak izan ziren eta Bittore Aierbek hainbat opari jaso zituen bere lagunengandik.

◆ San Bixenteak Parteittin

Angiozarreko Parteitti auzoan San Bixente jaia ospatuko da igandean. Egurdiko 12etan meza izango da San Bixente ermitan, ondoren luntxa banatuko da eta ordubatean Txinparta taldearekin dantzaldia. Kataideko txakolina, salda eta txorizoa banatuko dira Parteittin.

◆ Rock jaialdia larunbatean Uberan

Astebukaera honetan Uberako San Paulo jaiei hasiera emango zaie. Larunbatean, gaueko 10 t'erdietan, rock jaialdia izango da Utikan, Anestesia eta Piperrak taldeekin. Sarrera 500 pezetakoa izango da eta Uberan gau-pasa iragarrita dago.

◆ Baserriko Emakumeen Elkartearen hitzaldia

Baserriko Emakumeen Elkarteak antolatuta, Jerardo Elortzak "Baserria eta bere inguruan dauden kultur adierazpen eta ezaugarriak" izenburuko hitzaldia emango du astelehenean, hilak 22, arratsaldeko 3retan Kultur Etxean.

Gaiarekin interesatutako guztiei gonbidapena luzatzen die Baserriko Emakumeen Elkarteak.

◆ Ibagaraiko zozketa

Ibagaraiko dendariak antolatutako zozketan 8.366 zorbakia saritua izan da. Boletoaren jabeak Puerto de la Cruzera bi pertsonarentzako bidaia eskuratuko du. Boletoa Lagun Aro aseguru etxean banatu zen eta berau aurkezteko epea otsailaren 12an amaituko da.

ARREGI

Eraikuntza materialeak

Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
Tfnoa: 76 27 93

DENA 100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3

AGOITZ

Tapizdenda

San Lorentzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23

Autobusen ordutegi berria

PESAREN ORDUTEGI ALDAKETARI BURUZKO INFORMAZIO GUZTIA ZENBAKI BAKAR BATEAN →

PESA BIDE ZUZENA
902 10 12 10
PESA BIDE ZUZENA

Irteerak BERGARAtik

LAN EGUNAK	LARUNBATAK	JAI EGUNAK	LAN EGUNAK	LARUNBATAK	JAI EGUNAK
Bergara-Bilbo			Bergara-Eibar		
07:15	07:15	10:10	06:30	06:30	14:20
08:40	08:40	14:30	07:20	08:20	15:20
14:30	14:30	18:10	08:20	10:20	16:20
18:10	18:10	19:15	09:20	12:20	17:20
Bergara-Donostia (Tolosatik)			10:20	14:20	18:20
09:00	09:00	10:00	11:20	15:20	19:20
18:00	18:00	18:00	12:20	16:20	20:20
Bergara-Donostia (Autopistatik)			13:20	17:20	—
07:35	07:35	10:05	14:20	18:20	—
08:35	08:35	19:35	15:20	19:20	—
13:35	13:35	—	16:20	20:20	—
14:35	14:35	—	17:20	—	—
19:35	19:35	—	18:20	—	—
Bergara-Oñati			Bergara-Gasteiz		
07:30	—	—	07:15	07:15	09:15
09:30	—	—	08:00	09:15	11:15
13:30	—	—	09:15	11:15	14:15
15:30	—	—	11:15	14:15	15:15
18:30	—	—	14:15	15:15	17:15
19:30	—	—	15:15	19:00	19:00
20:45	20:45	—	19:00	19:15	19:15
Bergara-Iruñea			19:15	21:15	21:15
08:00	08:00	09:20	21:15	—	—
14:00	14:00	18:20	Bergara-Soraluze		
Bergara-Arrasate			06:30	06:30	14:20
07:35	07:35	15:35	07:20	08:20	15:20
08:35	09:35	16:35	08:20	10:20	16:20
09:35	11:35	17:35	09:20	12:20	17:20
10:35	13:35	18:35	10:20	14:20	18:20
11:35	15:35	19:35	11:20	15:20	19:20
12:35	16:35	20:35	12:20	16:20	20:20
13:35	17:35	21:35	13:20	17:20	—
14:35	18:35	—	14:20	18:20	—
15:35	19:35	—	15:20	19:20	—
16:35	20:35	—	15:20	20:20	—
17:35	21:35	—	16:20	—	—
18:35	—	—	17:20	—	—
19:35	—	—	18:20	—	—
20:35	—	—	19:20	—	—
21:35	—	—	20:20	—	—
Bergara-Antzuola			Bergara-Elgeta		
06:40	08:00	09:30	08:40	08:40	10:10
08:00	09:00	10:00	13:45	18:10	18:10
09:00	14:00	18:00	18:10	—	—
11:00	18:00	18:30	Bergara-Zumarraga		
14:00	20:30	—	08:00	08:00	09:30
14:10	—	—	09:00	09:00	10:00
17:00	—	—	11:00	14:00	18:00
18:00	—	—	14:00	18:00	18:30
20:30	—	—	14:10	—	—
Bergara-Oñati			18:00	—	—
07:10	—	—	Bergara-Antzuola		
08:00	—	—	06:40	08:00	09:30
13:10	—	—	08:00	09:00	10:00
13:50	—	—	11:00	14:00	18:00
15:10	—	—	14:00	18:00	18:30
17:10	—	—	14:10	—	—
19:10	—	—	18:00	—	—

Irteerak BERGARARA

LAN EGUNAK	LARUNBATAK	JAI EGUNAK	LAN EGUNAK	LARUNBATAK	JAI EGUNAK
Bilbo-Bergara			Eibar-Bergara		
08:00	08:00	09:00	07:00	07:00	15:00
12:30	12:30	12:30	08:00	09:00	16:00
15:30	17:00	17:00	09:00	11:00	17:00
17:00	19:30	19:30	10:00	13:00	18:00
19:30	—	21:00	11:00	15:00	19:00
Donostia-Bergara (Tolosatik)			12:00	16:00	20:00
07:00	07:00	08:30	13:00	17:00	21:00
16:30	16:30	16:30	14:00	18:00	—
Donostia-Bergara (Autopistatik)			15:00	19:00	—
08:00	08:00	18:00	16:00	20:00	—
12:30	12:30	20:45	17:00	21:00	—
15:00	18:00	—	18:00	—	—
18:00	19:30	—	19:00	—	—
19:30	20:45	—	20:00	—	—
20:45	—	—	21:00	—	—
Gasteiz-Bergara			Antzuola-Bergara		
06:30	06:30	08:30	06:50	08:30	10:00
08:30	08:30	09:00	08:30	12:10	18:00
12:30	12:30	10:30	09:40	18:00	18:40
16:30	16:30	12:30	12:10	19:40	—
18:30	18:30	16:30	16:40	20:40	—
20:30	20:30	18:30	17:15	—	—
—	—	19:30	18:00	—	—
—	—	20:30	19:40	—	—
Iruñea-Bergara			20:40	—	—
10:30	10:30	17:00	Soraluze-Bergara		
18:00	18:00	20:30	07:15	07:15	15:15
Arrasate-Bergara			08:15	09:15	16:15
06:15	06:15	14:05	09:15	11:15	17:15
07:05	08:05	15:05	10:15	13:15	18:15
08:05	10:05	16:05	11:15	15:15	19:15
09:05	12:05	17:05	12:15	16:15	20:15
10:05	14:05	18:05	13:15	17:15	21:15
11:05	15:05	19:05	14:15	18:15	—
12:05	16:05	20:05	15:15	19:15	—
13:05	17:05	—	16:15	20:15	—
14:05	18:05	—	17:15	21:15	—
15:05	19:05	—	18:15	—	—
16:05	20:05	—	19:15	—	—
17:05	—	—	20:15	—	—
18:05	—	—	21:15	—	—
19:05	—	—	Elgeta-Bergara		
20:05	—	—	08:50	08:50	09:50
Oñati-Bergara			14:05	17:50	17:50
07:10	—	—	17:50	—	—

PESAk erantzuten du



OHARRA: Azpimarratuta agertzen diren ordutegiak, ostiraletan klase egunetan ikasleentzako zerbitzu bereziak.

Osasuna

Ezkabia (Tiña)

- Zer da ezkabia ize-neko gaitza?

- Onddoak dira. Animalietan (batez ere txakurretan eta katuetan) eta pertsonetan agertzen dira eta azalaren gaisotasun bat litzateke. Giroan dauden onddo kutsakor batzuk dira eta, gehienetan, azal sensibleetan eta defentsak baju ditugunean agertzen dira.

- Badirudi Bergaran azkenaldian kasu dexen eman direla. Zer gertatu da?

- Horrela da, bai. Haurren artean zenbait kasu eman dira, batez ere kaleko katuek kutsatuta. Sintomak zeintzuk diren? Gizakietan hazkura handia ematen duten zonalde gorriak agertzen dira. Gorputzaren edozein tokitan azaldu daitezke eta nahiko gogaikarriak dira. Animaliei, berriz, ilea jausten zaie (ilerik gabeko guneak agertuz) eta, horrez gain, kaska azaltzen da ilerik gabeko gune horietan.

Arriskutsuena zera da: katuek ezkabia izatea eta horretaz ez konturatzea. Kasu subklinikoak dira

horiek: gaitza dute baina ez dute begibistara azaltzen eta transmititzen jarraitzen dute.

- Zein litzateke zure gomendioa?

- Beno, hasteko, kontrolatu gabeko katuekin ahalik eta kontakto gutxi-



PEPE FERNANDEZ
(Albaitaria)

en izatea gomendatuko nuke. Horretaz gain, oinarrizko hijiene gomendioak (eskuak garbitu eta

"Giroan dauden onddo kutsakorak dira. Gehienetan azala sensibleetan eta defentsak baju ditugunean agertzen dira"



Askotan katuen bitartez hartzen dute gaitza gizakiek.

horrelakoak) eta, azkenik, etxeko katuengan arreta izatea. Ilerik gabeko guneak agertzen badira (batez ere burua eta belarrien inguruan izaten dira) tratamenduan jarzea da egokiena.

- Zein izaten da jarraitu beharreko tratamendua?

- Pomadak eta pastilak daude, bai animalia zein gizakiendako. Normalean, hilabete-bi hilabete inguruko tratamendua behar izaten da gaisotasuna sendatu ahal izateko. Nahiko tratamendu luzea da eta buruhauste dexente ematen dituena baina, era berean, behin tratamenduan jarri ezkeror arazoa guztiz mozteko aukera dago.

- Urte osoan agertzen den gaitza da ala urte sasoi konkretuetan topa daitezke hala-ko kasuak?

- Urte guztian izaten dira horrelako kasuak. Hala ere, onddoak direnez, bero eta hezetasun baldintzatan agertzen dira gehiago. Neguan nekezagoa da horrelako gaitzak agertzea. Dena den, beharrezko neurriak hartuz gero, nahiko zaila da gizakiok gaitza jasotzea. Animalien kasuan, berriz, zalantzaren bat izatekotan albaitariarengana joan eta arazoa ziurtatzea da onena, beharrezko neurriak hartu ahal izateko.


Amets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI




Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

Goma goraka

Antisorgailuen artean kondoia eta pilula nagusi



Gizonezko zein emakumezkoentzako preserbatiboak, pilulak, espermizidak, era askotako antisorgailuak daude.

Azken hilabeteotan tabernetako mutilen komunetan ohiko tresneriaz gain gailu berri bat ikus daiteke, kondoia ateratzeko makina. Mozos farmaziaren kanpoaldean ere jarri dute kondoia makina.

Garai batean haurdunaldia saihesteko erabiltzen ziren metodoak (oginoa, ritmoa, temperatura...) orain ia ez dira erabiltzen. Gaur egun, ziurrak diren antisorgailuak dira arrakastatsuenak: diafragma, espirala edo DIUa, pilula eta preserbatiboa. Batez ere azken biak dira erabilienak.

Kondoia makinak

Jendeak haurdunaldia ez ezik IHESA kutsatzea ere saihestu nahi du; hori dela eta kondoia gero eta gehiago erabiltzen da. Horren adierazgarri ditugu Bergarako erdialdeko 10 tabernetan eta farmazia batean jarri diren kondoia makinak. Mozos farmazian errege bezperan

jarri zuten. *"IHESA saihesteko eskeini nabi dugun zerbitzu bat da. Farmazian gehien saltzen dena pilula da -betiko bikotea dutenek erabiltzen dute-; kondoia saltzen dira baina ez behar beste. Preserbatiboa erosten dutenak batez ere mutilak eta 25 urtetik gorakoak dira. Gazteagoek ez dute erosten eta makina horrexegatik jarri dugu, jendeak inolako lotsarik gabe edozein ordutan eta merke (4ko kaxa 400 pzta.) erosteko aukera izan dezan".*

Horretaz gain, badirudi jendeak kalitate txarre-

ko kondoia erabiltzen dituela: *"goardian egon garenean kondoia apurtu zaiela eta zer egin behar duten galdetuz dei dextente izan ditugu. Horrelako sustorik ez izateko, kalitate oneko kondoia jarri dugu makinan".*

Tabernetako makinak

Ander Beristain tabernetan preserbatibo makinak jarri, zaindu eta hornitzeaz arduratzen da. *"Euskalerrian eta Errioxan ibiltzen naiz. 200 makina ditut jarrita, bileran 9.000 kondoia inguru saltzen ditut. Gehien*

*Gasteizen saltzen dut, ikaragarri. Elgoibar, Ermu eta Beasain-Ordizin ere asko". Makinek izan duten harreraz pozik dagoen arren, oraindik ere aurreiritzi asko dagoela dio Anderrek: "Makina jartzea tabernariari pezeta bat ere ez zaio kostatzen, gastuak nire kontu dira eta berak komisi-
oa jasotzen du, baina 10 tabernatik 2 edo 3tan bakarrik ematen didate makina jartzeko baime-
na".*

Makinak mutilen komunetan

200 makinetatik 180 mutilen komunetan daude. Bergaran, Popisen bakarrik dago emakumezko eta gizonezko komunen arteko pasiloan. "Leku diskreto batean jarri ezean jendeak ez du erosten. Neskenetan ez dut uste jarriko ditudanik, beharbada Arranon neskek, eurek, eskatu dutelako" dio Anderrek.

Tabernariiek diotenez ez da asko saltzen. Pol-

polen esaterako, IHES ekimenak jarrita preserbatiboak barran daude borondatearen truke; bertako tabernarien iritziz kondoi makinan baino gehiago eskuratzen da era horretara. Ander Beristain, makina hornitzailearen ustez, berriz, Bergaran makina gehiegi jarri ditu eta salmenta oso banatuta dago. "10 makina horrelako herri baterako gehiegi da, baina kontsumoa oro bar hartuta ez da txarra; abenduan 600 kondoi saldu ziren".

Kaxan kondoi bakarra

100 pezeta balio du preserbatibo bakoitzak. "Garantia osokoak dira, osasun neurri guztiak betetzen dituzte eta normalak dira, hau da, ez dute gustorik, ez kolorerik ezta forma arrarorik ere. Esperimentu gisa Logroñon jarrita dut homosexualentzako berezia den preserbatibo makina, eta egia esan, arrakasta izan du".



Duela gutxitik, tabernetan ez ezik farmazia baten kanpoaldean ere badago kondoi makina.

Antisorgailu metodo ezberdinak

Erabiltzen duten mekanismoaren arabera egingadako sailkapena.

1. Metodo naturalak:

Inolako mekanismorik ez duten antisorgailuak dira

- Coitus interruptus edo atzera-martxa: eiakulatu aurretik zakila bajinatik ateratzean datza. Ez da gomendagarria, %5-10etan huts egiten du.

- Ogino: obulazioaren aurreko eta osteko egunetan harremanik ez izatean datza.

- Billings metodoa: egun emankorrak zehazteko metodoa da, muki zerbi-kalean sortzen diren aldaketak aztertuz.

Ogino eta Billingsak alde txarrak dituzte, izan ere, ikasketa bat eskatzen dute, sexu-harremanak egun batzuetan mugatzen dituzte eta askotan huts egiten dute, %10etan.

2. Barrera metodoak:

- Preserbatiboa: zakilan, tente dagoela, jartzen den zorro lubrifikatua da.

Alde onak: ez du ondorio-rik, ez du kontrol medikorik behar eta sexu bidezko transmisioa eta HIESa saihesten ditu. %2-6tan egiten du kale.

- Diafragma: Bajinan jartzen den latex gomazko

semiesfera da. Crema espermizidarekin batera erabiltzen da. Neurri desberdinetakoak daudenez, medikuak agindu behar du bakoitzarentzako egokia zein den. Nola jarri ere berak erakusten du. Koito ostean gutxienez 6 ordu-tan jarrita eduki behar da. %10etan huts egiten du.

- Spermizidak: espermatozoideak hiltzeko sustantzia kimikoak dira. DIU eta preserbatiboekin erabiltzen dira.

- Hormona bidezko anti-sorgailuak, pilulak: Haurdunaldia saihesteko erabiltzen diren hormona sintetikoak dira. Antisorgailuen artean metodorik erabiliena da.

Alde onak: huts egiten duenean (%1 baino gutxiago) pilula gaizki hartu delako da. Ginekologoaren kontrola eskatzen du eta gazteentzat egokia da, zikloa erregulatzeaz gain, hilekoaren mina gutxitzen duelako.

- DIUa: Uteroan ipintzen den kobre eta plastikozko gailu txiki bat da.

Abantailak: eroso da, 2-4 urteko iraupena du eta %2tan huts egiten du.

Alde txarrak: hilekoaren iraupena eta kantitatea gehitzen du, ginekologoaren kontrola eskatzen du eta haurrik izan ez dute-entzat ez da gomendagarria.

Alfredo Otalora ginekologoarekin berriketan

- Zein pertsonentzat da antisorgailu bakoitza?

- Oro har esanda, gazteek preserbatiboak eta pilula erabiltzen dituzte.

Haurrak dituzten emakumeek kondoia, pilula edo Diua erabiltzen dute.

Nahi beste haur izan dutenek metodo irrebersibleak erabiltzen dituzte: basktomia edo tronpa lotura.

Diafragma noizbehinkako sexu-harremantarako egokia da.

- Abortatzeko pilulaz, basktomiaz eta tronpen loturaz zer diozu?

- Abortatzeko pilula, Ru48, haurdunaldiko lehen egunetan erabiltzen bada abortoa eragiten du. Estatuan ez da komertzializatzen, Estatu Frantziarrean ospital batzuetan erabiltzen da bakarrik.

Hurrengo eguneko pilula: koito osteko 72 orduetan erabiltzeko hormona tratamendua da. Preserbatiboa apurtzen denean, bortxaketa kasuan... erabil daiteke.

Basktomia: barrabiletatik (hantxe sortzen dira) espermatozoideak daramatzaten hodiei zatitxo bat kentzea da. Ebakuntza (anestesia lokalarekin)



Ginekoloa da metodo bakoitzaren alde onak eta txarrak eman behar dituen

na ematen bada jendeak ez du errezelarik izaten.

- Gizonetzat, kondoiaren gain, bada go beste zer bait?

- Oraingoz basktomia eta kondoia bakarrik dago. Arlo honetan abortatzeko bakuna errebersiblea ikertzen ari dira.

- Zein da metodorik seguruen

ena?

- Metodo errebersible seguruenak hormona bidezko antisorgailuak dira. Ondo erabiliz gero %99ko ziurtasuna dute.

- Zein da erosoena?

- Ez dago antisorgailu "idealik", bikote bakoitzak aukeratu behar du egokien doakiona. Teorian antisorgailu ideala hauxe litzateke: segurua, eroso, ondoriorik ekaritzen ez duena eta errebersiblea. Ginekologoa da metodo bakoitzaren alde on eta txarren berri eman behar duena.

egin eta bi hilabetera da eraginkorra.

Tronpen lotura: Tronpak betirako moztean datza. Anestesia orokorra behar du.

- Emakume askok pilula hartzeko errezerloa dute, ekar ditzaketen ondorioengatik.

- Gero eta gutxiago. Informazio ona eta zuzene

"Ez dago antisorgailu idealik, bakoitzak aukeratu behar du ondoen doakiona"

BILDUMA BERRIA

bonardi '96

MULTIOPTICAS-EN ESKLUSIBA

**Asko Gustatzeko.
Gutxi Gastatzeko.**



2.850
P T A

Hemen dago jadanik MultiOpticas-eko Bonardi bilduma eskusiboa, adin, gustu eta poltsiko guztietara egokitzen diren modelo guztiekin. MultiOpticas-en garantiarekin 450 salmenta tokitan. Prezio paregabe batean. Gastatugabe gustatzeko.

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

BERGARA

ARRASATE

ORDIZIA

1.ak
ZERBITZU
OPTIKOETAN

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta 2 - EIBAR - ☎. 100522

LongLife
Larqa vida

**Kalitate goreneko
larrurik naturalena.**



5 urteko garantiaz

Eta LongLife modelo
baten erosketagatik larrua
garbitzeko eta
mantentzeko produktu
aukera osoa jasoko duzuz!



grupo



**Amuebladora
Mondragonesa**

a. eme interiores, Garibai, 9 ARRASATE • Tfnoa: 79 15 03
centro hogar muebles, Zigarrola, 1 ARRASATE • Tfnoa: 77 14 92

Antisorgailuak erabiltzeko ohiturarik badaukazu?



Luis Martin Oregi

31 urte, langilea

Bai. Kondoiak erosten ditut normalean. Non? Farmazietan beti, konfidantza gehiago ematen didate eta.



Julia Luna

40 urte, langabetua

Ez. Baina jendeak antisorgailuak erabiltzeko beharra duenean erabiltzea ondo iruditzen zait.



Martin Sánchez

37 urte, langilea


Bai, batzuetan erabiltzen ditut. Kondoiak erosteko farmazietara joaten naiz normalean.



Maite Aranzabal

33 urte, langabetua

Ez, ez daukat ohiturarik, ez daukadalako horren beharrik.



Inocencio Crespo

37 urte, langilea

Ez, ez daukat beharrik. Baina ondo ikusten dut antisorgailuak erabiltzea.



Isabel Miranda

28 urte, etxekoandrea

Bai. Kondoia da gehien erabiltzen dugun antisorgailua. Erosteko nahiago dut beti farmazietara joatea, gehiago fidatzen naiz.



LAGUN ARO

ASEGURUAK



AGENTEA-DELEGATUA

Ramon Iraegi Eguren

Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxa: 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00

Larunbatetan: 9.00-13.00





Historia puskat

Jadanik, 10 urte pasatu dira AEDk herri ekimenari hasiera eman zionetik. Mugimendu honi oinarri teorikoa Jose Maria Sánchez Carriónnek, Txepetxek, eman zion.

Ondoren, mugimendu hau hedatu egin zen eta Jardun, Barbaro, Laixan, Bagare, Bagera, Idolaz, Loramendi eta abar etorri ziren. Geroago, Debagune eta Topagune ere sortu ziren mugimendu hauek biltzeko asmoz.

Euskara bultzatzeko guruziaz gain, elkarte hauek guzti-ek amankomunean dute udalen, foru aldundien edo Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak jasotzen dituztela. Honek, gehiago sakondu barik ere, zelabaiteko menpekotasuna adierazten du.

Honekin apurtzen Barbaro izan zen aitzindaria, taberna zabaldu baitzuen Durango erdian. Oraingo honetan ostera, Bilbo aldetik datorkigu berria. Bertan, Zenbat Gara kultur elkarteak, Txepetxek teoriari jarraipena emanik, Bilbo erdian eta diru pribatua erabiliz Kafe Antzokia zabaldu berri du. Honek, Bilboko euskaldunen topagune eta nortasun aitorturik gabeko ("Estaturik" gabeko) herrien leku izan nahi du.

Segitzeko moduko ejenploa dela pentsatzen dut. Berba klabea autofinantziazioa izan daiteke.

Felipe IÑARRA



Konpromezu berriak

Zertaz idatzi asmatu ezinean ibili naiz egunotan. Horrelakoetan betiko kontutan erortzen gara gehienetan, kritikan. Egia da bizitzan kritikoa izan behar dela, baina azkenaldian nahiko nekatuta nago alde guztietatik darabilgun ezkortasunarekin.

Tamalgarria izaten da egunkaria irakurri, albistegi bat ikusi edota irratsaio bat entzutea. Albiste gehienak ezkorak izaten dira. Horrelakoak entzun ondoren, nola jasoko dugu gure animoa? Albistegi baten ondoren, bizitzaren aurrean baikorra izatea zailagoa egingo zaigunaren zalantzarik ez dut.

Urte berria hasi dugu orain. Gabon garaian konpromezu berriak hartzeko egunak izaten ditugu guztiok. "Aurten hortan hobetu beharra dut. Aurten beste hura bete behar dut" izaten dira denok bueltaka ditugun usteak. Baina urtea hasi da, eta martxa bizkorrean gainera. Eguneroko eginbeharretan murgildurik, berehala uzten ditugu gure usteak alde batera.

Bizitza aurrera doakigu eta gure indarrak eguneroko zeregin lelotan galtzen ditugu. Gizartearen marearekin batera ibiltzen gara gora eta behera, gora eta behera.

Eguraldi txarra egitea, albiste txar bat entzutea edo goizean esneak gainezka egitea nahiko izaten dugu askotan egun beltz bat izateko.

Bizitzari baikortasunez heldu beharra diogu. Gure inguruaz gozatu, familiaz, lagunez... Azken finean, hori da bizitzari zentzua ematen diona.

Ainhoa LETE

Aranzabal

OIHALAK

Zubieta, 32 ☎ 76 11 50

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Erakusketak: Masterreka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**


Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12



■ **Ahateak osasun onean**

Orain ia urtebete **Mendia Bizirik** talde ekolojistak Deba ibaian askatutako basahateak osasun onean dira. "Ibaiak eta gu. Ibaiaren osasuna, denon osasuna" iaz egindako kanpainak badirudi emaitza onak eman dituela. Horren lekuko, basahateak ibaiaren egoerara egokitu dira eta hor ibiltzen dira Bideberri inguruan, errekan gora, errekan behera. Bisitari bat baino gehiagok bere harridura azaldu du basahateak ikustean. Ea luzaroan hor jarraitzen duten...



■ **Erregeak toki guztietara heltzen dira**

Dagoeneko 15 egun badira Errege Magoak etorri eta joan zirela. Herriko kaleak jendez beteta ikusi genituen urtarrilaren 5ean, baina **Elosura** ere hurbildu ziren eta ikustekoak ziren ume elosuarren aurpegiak, bananan-banan opariak hartzera erregeen altzotara inguratu zirenean. Primeran pasa zuten eta kaleko haurrek bezala eurek ere gertutik ikusi zituzten **Meltxor, Gaspar eta Baltasar**.

Jokabideen Psikologia Kabinetea
J.R. FERNANDEZ

Antsietate, depresio, stress eta bikoteen arazoan diagnostiko eta tratamendua

Ramon Maria Lili 2, printzipala eskuma
Telefonoa: 76 59 39 • Faxes: 76 25 72

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

**ANDONI
ARANZABAL
LAZCANO**

FINKA ADMINISTRATZAILEA
Barrenkale, 7 1. Eskuma **BERGARA**
☎ 76 03 46

Zertan dihardute ba?



Jokin Etxaniz 25 urteko bergarar pilotaria binakako txapelketako finalerako sailkatu zen larunbatean, Eibarko Astelena pilotalekuan, Arretxerekin batera, Alustiza eta Errastiri 22 eta 15ko emaitzarekin nagusitu ondoren. Etxaniz, dudu barik, partiduko izarra izan zen. Jokinek 14 tantu egin zituen eta partidu borobila burutu zuen, meritu haundiko jokaldiak eginez. Partiduko ikusleek zein pilota kazetariak berak egindako lana goraiatu dute egunotan. Etxanizek eta Arretxek Unanue-Elkoro/Capellan-Beloki biharko partiduko irabazleen aurka jokatuko dute finala datorren larunbatean.

■ Telebista Udal Pilotalekuan

Udal Pilotalekua berritu ondoren, igandean lehen aldiz telebistako kamarak izan ziren Bergaran. Eguerdian Euskal Telebistak **Izarra eta Azkoitia, Nafarroa eta Gipuzkoako herrien arteko txapeldunen arteko**

neurketa grabatu eta igande arratsaldean emititu zuen. Nafarrak nagusitu ziren, gazte eta seniorretan irabazi ondoren. Azkoitiarrek, berriz, kadetetako garaipena eskuratu zuten. Frontoian bildutako jendetzak eta ETBko ikusleek partiduekin gozatzeko aukera izan zuten.

■ Lokatzaren zozketa

Lokatzak Gabonetan zozketatutako mendiko bizikleta **Pello Mujika** gaztetxoari suertatu zaio. **Zenbaki saritua 5.784a** izan zen eta, horren truke, Pello Mujikak argazkian ikus



dezakezuen opari ederra jaso zuen astelehenean. Pellok uda aldera kilometro mordo egin ahal izango ditu eta nork daki Lokatzak ez duen txirrindulari berri bat izango laister. Argazkian, Pello Mujika, **Jose Mari Gabilondo** eta **Pello Garitano** Lokatzako arduradunen artean. Zorionak!!

LARRAÑAGA
eta **ZUBIA**
Banatzailleak

Errioxako ardoa, olioak, esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta, 26 BERGARA

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA

☎ 76 12 31

Itxaro Aranzabal

Itxaro Aranzabalek 14 urte ditu eta Aranzadi ikastolan BBBko 1. maila egiten ari da. Duela hiru urte hasi zen panderoa ikasten, urrian, berriz, soinua jotzen. Ostiralero karroa hartu eta buzoirik buzoiri Berrigara banatzen ibiltzen da.

- Zein asignatura duzu gustokoen?
- Musika eta gimnasia.
- Zein gorrotatzen duzu?
- Mate, sekula ez zait gustatu.
- Zu irakasle bazina zer emango zenuke?
- Musika, euskal abesti zaharrak erakutsiko nituzke.
- Kantatzeko ohiturarik bai?
- Lagunak aspertuta ditut, beti isiltzeko esaten ari zaizkit.
- Panderoa ala soinua?
- Panderoa, errazagoa delako, baina soinua ere asko gustatzen zait.
- Instrumentu bat?
- Gitarra, oso doinu polita du eta erromantikoa da.
- Kantu bat nori eskainiko zenioke?
- Iñaki Arenaza lehengusuari,



“Dagoeneko 5 abesti dakizkit soinuaz jotzen eta oso gustora ibiliko nintzateke Maixa eta Itziar edo Gozategi anaiak bezalako taldeetan. Lagunak aspertuta ditut beti kantatzen ari naizelako eta Iñaki Arenaza lehengusuari eskeiniko nioke abesti bat”

- kartzelan dago. Amnistiaren dema kantatuko nioke.
- Haundia izaten zarenean zer izatea gustatuko litzaizuke?
- Sukaldari.
- Orain etxean zer gertatzen duzu?
- Arraultzak... baina batez ere jaki hotzak: entsaladak-eta. Suak beldurtu egiten nau.
- Informatiboen musika nola dantzatuko zenuke?
- Ezin da, gainera niri trikitixa gustatzen zait.
- Dantzari profesionala izango zinateke?
- Ez, oin handiak ditut eta takarra naizela diote.
- Dantzarako bikote apropos bat?
- Bittor Aiape, oso guapoa da.
- Guraso bazina zer egingo zenuke?
- Seme edo alabari lagunak etxera joaten diren orduan bueltatzeko esango nioke.
- Eta alkate izanez gero?
- Gazteentzako lokal bat ipini.
- Gazte batek zer egin dezake eskola orduetatik kanpo?
- Kirola.
- Minifalda ala praka pitilloak?
- Erropa erosoak gustatzen zaizkit.
- Astebururako plan on bat?
- Lagunekin mendira joan eta bertan lo egitea.



BALDANA al baitari klinika
Koldo Elizalde, 28 behea ☎ 76 27 97

Larrialdietako zerbitzua 24 orduetan eta txanda hartzeko erantzungailu automatikoa.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
 ☎ 79 91 82 ARRASATE



- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorenzo, 7 behea.
 ☎ 76 50 39

AKORT

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

ETXEBIZITZA

Lokal komertziala Muger-tzan salgai ☎ 76 13 62.

Aranerrek **pisua** salgai. (12.500.000 pzta.) ☎ 76 00 39 / 79 27 68.

Pisua salgai San Antonion. Bi ganbara. ☎ 76 46 22.

Pisua salgai. Lorategiare-kin. ☎ 76 15 76/76 33 85.

Pisu salgai Koldo Eleizalde 26an. ☎ 76 44 84.

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Pisua salgai K. Eleizalden. Garajearekin. ☎ 76 45 16.

Ganbara edo apartamentua erosiko nuke. ☎ 76 40 90.

Lokal bat saldu edo alokatzen da Ozaetan. ☎ 76 47 74 .

Duplex pisua salgai Arane-rrekan. ☎ 76 06 63.

Baserría eta lonja salgai Uberan. ☎ 76 10 00.

Pisua konpartituko nuke. ☎ 76 51 96.

Garaje bat alokatuko nuke Burdiñaten. ☎ 76 18 52.

Garajea erosiko nuke Ma-txiategin. ☎ 76 19 98.

Pisua salgai Bidekurutzeta-n. ☎ 76 56 07.

DENETARIK

Umeendako sila kotxea salgai. ☎ 76 57 32.

Poltsikoko **Casio telebista** salgai. ☎ 76 56 13 (Markel).

Eraztun bat galdu nuen Gabonetan, Poligonotik ka-lera bidean. Balio sentimen-tala. ☎ 76 41 31 (Anita).

Collie arrazako txakurku-meak salgai. ☎ 76 64 83.

Opel Corsa (SS-AJ) ko-txea salgai. ☎ 76 28 17.

Mendiko bizikleta bat eta Flanders aluminiozko koa-droa salgai. ☎ 76 47 94.

Peugeot Scooter motorra egoera onean salgai. 65 zm3. Prezio interesgarria. ☎ 76 46 18.

Renault 4 F6 kotxea sal-gai. ☎ 76 22 11.

Bigarren eskuko **karabina** erosiko nuke. ☎ 76 24 31.

Kawasaki 125 KX motorra salgai. ☎ 76 25 50.

Musika bateria salgai. Ia berria. 55.000. ☎ 76 08 58.

Bizikletan ibiltzeko rodilloa erosiko nuke. ☎ 76 18 78.

Josteko makina salgai. Egoera eta prezio onean. ☎ 76 48 47 (Loli).

Mahai borobila salgai. 90 zm.ko diametroa. Singer makinaren oinarria. 20.000 pezeta. ☎ 76 52 31.

"Imar" karro-denda salgai. ☎ 76 58 62 (gauetz).

Comodore ordenagailua salgai. 50.000 pezeta. ☎ 76 56 13 (Iker).

LANA

Aleman klaseak ematen dira. ☎ 76 12 77 (Maite).

Ingeles klaseak ematen di-ra. ☎ 76 40 89 (Gemma).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59 (Inma).

Ingeles klaseak ematen di-ra. ☎ 76 31 36.

Tai Chi klaseak ematen di-ra. ☎ 71 41 91 (Marijose).

Matematika eta zientzieta-ko klaseak. ☎ 76 06 50.

Etxeko lanak egingo nituz-ke. ☎ 76 52 89 (Rosario).

Etxeko lanak egin eta haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 82 (Isabel).

Ingeles Filologia duen neska batek lan egingo luke. ☎ 76 40 63 (Manoli).

Cambridgeko titulua duen publizitate lizentziatuak ingeles klaseak emango li-tuzke. ☎ 76 06 56 (Irene).

Aleman diplomatuak kla-seak emango lituzke. ☎ 76 04 93 (Idoia).

Zaharrak edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 76 53 18.

Matematika eta zientzie-tako klaseak. ☎ 76 03 72.

Gutxitu sikikoak, zaharrak edo haurrak zainduko nituz-ke. ☎ 76 48 65 (Paki).

Angiozar, 37 ☎ 76 27 82



LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31 Tfnoa: 76 20 02 **BERGARA**



Zatoia
Boutique

Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14



"Jendeak zirkoarekin lotzen du klowna edo pailazoa baina gure lana helduei zuzenduta doa batez ere"

"Maiatzera bitartean kafe antzerki saioak antolatuko ditugu hil bakoitzeko azken ostegunetan Pol-Polen"

VIRGINIA IMAZ, OIHULARI KLOWN TALDEKOA

"Klowna beste antzerki mota bat da espresibitatearekin oso lotuta dagoena"

Virginia Imazek (33 urte) 11 urte eman zituen irakaskuntza munduan, haurrei eta helduei erakusten. Hura utzi zuen eta antzerkiaren eta klownaren (pailazoak) munduan buru-belarri murgilduta dago azkenaldian. Oihulari Klown taldean zuzendari lanak egiten ditu beste gauza askoren artean.

- Noiztik klownaren munduan?

- Oihulari orain dela hamabost bat urte sortu genuen, baina orain dela lau urte eman genuen profesionaltasunerako urratsa. Taldean 12 lagun gara, baina horietatik 6k kolaboratzaile lanak egiten dituzte batipat.

- Zer da klowna?

- Guretzat pailazoena beste antzerki mota bat da, espresibitatearekin oso lotuta dagoena eta maskara deitutakoaren espezialitate bat. Gure kultura, bufoia, klowna eta artearen komedia dira maskara osatzen duten pertsonaiak. Jendeak zirkoarekin lotzen du pailazoa edo klowna, baina gure lana helduei zuzenduta doa batez ere, haurrentzako muntaiak ere,



Melo, Karmelo eta Idoia, "Alfonbra Magikoa" umeei zuzendutako antzezlaneko protagonistak.

"Alfonbra magikoa" ipuin kontaketa esate baterako, lantzen ditugun arren. Gure lanak zerikusi haundiagoa du Faemino y Cansadok egiten dutenarekin. Umore inteligentea eta sensiblea, beti ere kritika sozialarekin. Pedagogikoa. Hala ere guri gehien gustatzen zaiguna Mister Bean da.

- Nondik nora mugitzen zarete?

- Institututan, emakumeen elkarteetan, kultur etxetako liburutegietan... Zirkuito komertzialetan

sartzea oso zaila da. Eta gero, Euskal Herrikan kanpo lan asko egiten dugu.

Antzezlanak, ipuin saioak, ikastaroak..., denetik giten dugu, eta gero azkenaldian arrakasta handia izan dugu praktika berri batekin. Klownklusioak deitzen diogu. Edozein gairi buruzko jardunaldietara joaten gara eta antolatzaileek esaten digutenean inprobisatzen hasten gara, jardunaldiei beste ikuspegi bat emanez. Horrek sekulako arrakasta izan du eta Bartzelona, Madril edota Valentzian antolatzen diren kongresuetatik deitzen digute.

- Non entsaiatzen duzue?

-Ahal dugun tokietan, Angiozarko parrokiaren saloian, etxe partikularretan... Lokalik ez daukagu eta eskatu izan diogu Udalarari, baina lokalik ez dagoela erantzun digute.

- Kafe antzerki saioak ere antolatu dituzue.

- Bai, azaroan ekin genion eta maiatzera bitartean hilabeteko azken ostegunetan klown eta ipuin kontaketa saioak antolatuko ditugu Pol-Pol tabernan.

"Gure lana gertuago dago Faemino y Cansadok egiten dutenarekiko. Umore inteligentea, sensiblea eta kritika soziala duena egiten dugu"



1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. ERROTAGAIN	22	9	34	17
2. MADURA INDUSTRIAS GOL	19	9	32	13
3. KABIA	17	10	25	21
4. BAR CANALEJAS	16	9	22	12
5. MONGATXURRA	15	8	31	16
6. BERGATRANS	15	9	26	18
7. OGIZUN	14	9	28	27
8. ORTZI	13	9	19	19
9. ARLOTEAK	8	8	14	18
10. OZETA	6	9	20	26
11. BILDURBAREK OPEL/LAM	6	8	16	19
12. UFALA	2	9	15	37

2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. JAUJA OH ZEREZOS	25	9	70	23
2. A ZE FLAXA	22	10	34	26
3. PAGOMENDI	20	10	51	33
4. HARTU ZAMAK	17	9	35	25
5. ETXAGI	16	10	51	41
6. NAIKARI HOOLIGANS	13	10	28	39
7. KAYAK OS JARDINEIROS	12	9	48	33
8. UVE BIKOITZA	12	10	32	49
9. AUTOBEREZI	9	9	37	41
10. HALTZARI	9	10	27	47
11. IARGORRI	6	10	17	28
12. ERI	4	10	27	43

3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. KIROLZALEAK	25	11	52	26
2. SOROPOTROAK	24	10	55	32
3. NEKROFILIKOS	18	10	38	37
4. MOSKIS	17	10	28	35
5. LA JUVE	16	10	33	34
6. CONSTR. BERGARA	13	10	33	29
7. AMOZKIBAR	13	9	22	17
8. EZINLEIKE	11	9	40	27
9. EH BITERRAK	11	9	16	39
10. SHAKTALE	8	10	19	35
11. ARI ARI	6	9	35	51
12. IGANDEKOAK	4	8	20	27

4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	25	9	47	18
2. PJS	22	10	50	17
3. GUADALEST	17	9	42	20
4. OSINTXU	17	10	45	24
5. TXIPIRON	16	9	33	18
6. PATXARAN TEAM	14	9	31	21
7. PATA NEGRA	13	10	28	51
8. MATXAKATEGI	11	10	41	46
9. LABEGARAIETA	7	10	20	53
10. ALDOKA MALDOKA	7	10	34	34
11. XURRUPAK	0	8	15	56

TALDEAK



Nekrofilikos taldea David Urbina, Mikel Agirre, Oscar Martín, Miguel Rodríguez, Sergio Rodríguez, Ignacio Velasco, Mikel Tabares, Jorge de Manueles, Juanjo Castro eta Javi Guerrerok osatzen dute. Aurtengo bigarren urtea dute txapelketan eta 3. mailako lehen postuetan dabilta. Izen xelebrea dute eta adierazi digutenez, "taldean funerarian lan egiten duen jokalaria bat dago eta horregatik jarri diogu izena". Euren helburua mailaz igotzea da eta espero dezagun itxaropen horiek "nekrologiketan" ez gelditzea. Ea, bada, segi aurrera!!

PARTIDUAK

LARUNBATEAN BARRUAN

09:00: Bildurbarek-Ozaeta • Bergatrans
10:00: Errotagain-Bergatrans • Ogizun
11:00: Ogizun-Kabia • Errotagain

LARUNBATEAN KANPOAN

09:00: Shaktale-Ezinleike • La Juve
10:00: Nekrofilikos-La Juve • Shaktale
11:00: Eri-Autoberezi • Nekrofilikos
16:00: Igandekoak-Soropotroak • Ari Ari
17:00: Ari Ari-Kirolzaleak • Soropotroak

IGANDEAN BARRUAN

16:00: Mongatxurra-Madura I. Gol • Arlotek
17:00: Bar Canalejas-Arlotek • Madura I. Gol
18:00: Angiozar-Ufala • Bar Canalejas
19:00: Etxagi-Hartu Zamak • Ufala
20:00: Naikari Hool.-Jauja OH Zerezos • Etxagi

IGANDEAN KANPOAN

16:00: Moskis-Amozkibar • Construcc. Bergara
17:00: EH Biterrak-C. Bergara • Moskis

EMAITZAK

1. MAILA

ERROTAGAIN-OGIZUN 3-0
ANGIOZAR-MADURA INDUSTRIAS GOL 0-2
BAR CANALEJAS-KABIA 2-2

2. MAILA

A ZE FLAXA-INDARGORRI 6-0
ERI-PAGOMENDI 4-6
HALTZARI-NAIKARI HOOLIGANS 2-0
UVE BIKOITZA-ETXAGI 2-7

3. MAILA

LA JUVE-EZINLEIKE 4-3
IGANDEKOAK-CONSTRUCCIONES BERGARA 2-2
NEKROFILIKOS-KIROLZALEAK 2-8
EH BITERRAK-MOSKIS 1-1
ARI ARI-AMOZKIBAR 4-7
SOROPOTROAK-SHAKTALE 10-0

4. MAILA

FAC-MATXAKATEGI 9-4
ALDOKA MALDOKA-PATA NEGRA 6-0
OSINTXU-TXIPIRON 2-2
LABEGARAIETA-GUADALEST 1-18
PATXARAN TEAM-PJS 2-4

TALDEAK



Kirolzaleak taldea Mikel Irizar, Oscar Navarro, Jabi Burgos, J. Luis Bengoetxea, Alfredo Najera, Alberto Azurmendi, Ibon Gantxegi, J. Vicente Moya, Roberto Calleja eta Paco Morenok osatzen dute. Taldeko jokalaria batzuk txapelketa hasi zenetik dabilta jokatzeko, baina 3 urte daramatzate oraingo izenarekin jokatzeko. Izenari dagokionez, ez du esan nahi oso kirolariak direnik. Jokalariak beterrano samarrak izan arren, 3. mailako liderrak dira eta sasoiak daudela erakutsi dute. Euren helburu nagusia bigarren mailara igotzea da.

TXINPARTAK

Nesken futbito txapelketa

Joan zen larunbatean eman zitzaion hasiera Emakumezkoen Lehen Futbito Txapelketari. Hiru partidu jokatu ziren lehen jardunaldian. Almondigak eta Guk taldeen arteko neurketa lehenengoek irabazi zuten 2 eta 1. Potzu eta Zapaburuak taldeak Blue Star taldeari 3 eta 2 irabazi zion eta Push Team-ek Berdin da taldeari 2 eta 1 irabazi zion. Zapatu honetan besté hiru partidu jokatu dira arratsaldeko 4etatik aurrera Miguel Altuna institutuko patioan.

Mendi irteera

Pol-Polek 14 urtetik gorako gazteentzat Otzaurte-Aratzera mendi irteera antolatu du hilaren 28rako. Irteera goizeko 8.30etan autobus geltokian izango da eta izena Pol-Poleko bulegoan eman daiteke astelehenetik ostegunera 7etatik 8.30etara.

Aitor Oregi Asegarcera

Aste honetan bertan urtebeterako fitxatu du Asegarcerekin Aitor Oregi pilotari bergararrak. Oregik 28 urte ditu eta azkenaldian geldirik izan da. "Oso pozik nago eta orain sasoi puntuan jarri eta pilota partiduak jokatzen hastea da nire asmoa" esan digu Oregik.

Neskak futboleant

70 lagun futbito txapelketan

BKEko Emakumezkoen taldeak aurtengoa bigarren urtea du Gipuzkoako ligan jokatzen duena eta 16 taldetatik 9. postuan dago sailkatuta. Azken partiduan Zarautzen aurka 2 eta 1 galdu arren denboraldi txukuna ari dira egiten Bittor Agirregabiria entrenatzaileak adierazi digunez. *"Taldeen 2. urtea da eta kontutuan izanda joan zen urteko taldetik 13 jokalarik alde egin dutela, eskertzekoa da jokalaria berriak egiten ari diren lana".*

Taldean 14 urtetik 22ra bitarteko 22 jokalaridau de eta Agirregabiriak adierazi digunez, taldeatera zutenetik emakumezkoen artean futboleant jokatzeke zaletasunak gora egin du Bergaran. *"Taldea atera genuenetik emakumezkoen futbola asko igo da eta eskola mailan ere larunbat goizero 40 neska inguru aritzen dira Ipintzan futboleant jokatzen. Hori*



BKEko emakumezkoen futbol taldea.

etorkizunerako garrantzitsua da, harrobia baitaukagu".

Halere, oraindik taldean esperientzia faltan botatzen du entrenatzaileak. *"3 urte daramatzagu entrenatzen eta asko hobetu dugun arren, oraindik arlo teknikoan gauza batzuk hobetu behar ditugu. Gainera, ikasketak direla eta, jokalaria batzuk taldea laga egin dute eta kalterako izan da".*

70 jokalarifutbitoan

Bestalde, joan zen asteburuan hasi zen Lagunak elkarteak antolatutako emakumezkoen 1go futbito txapelketa. Antolatzaileek adierazi digutenez arrakasta handia izan du txapelketak lehen aldia izateko. *"Txapelketaren helburua nesken artean kirola bultzatzea izan da. Zeren afizionatut mailan ez baitute aukera handirik taldeko kirola egiteko"* adierazi digu Mikel Fernandezek, antolatzaileetariko batek. 7 taldek eman dute izena eta talde bakoitzean 3 federatuk joka dezakete. Bi bueltara denek denek aurka jokatuko dute eta lau onenek final erdiak jokatuko dituzte. Partiduak larunbat arratsaldetan Miguel Altuna institutuan jokatuko dira eta final erdiak eta finala Labegarietako kiroldegian. Adinari dagokionez, 16 urtetik 24ra bitarteko jokalariek hartzen dute parte.



Joan zen astean eman zitzaion hasiera nesken futbito txapelketari.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

- ◆ **Bergara-Euskalduna**
Lehen erregionala.
Igandea, 16.15. Agorrosin.
- ◆ **Bergara-Ordizia**
Lehen mailako kadeteak.
Larunbata, 16.45. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Soraluze**
2. mailako kadeteak.
Larunbata, 15.30. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Zarautz**
Lehen mailako infantilak.
Igandea, 11.15. Ipintza.

NESKEN FUTBITOA

- ◆ **Push Team-Mambo**
Larunbata, 16.00.
Miguel Altuna institutua.
Kantxa nagusia.
- ◆ **Almondigak-Potzu T.Z.**
Larunbata, 17.00.
Miguel Altuna institutua.
Kantxa nagusia.
- ◆ **Blue Star-Guk**
Larunbata, 16.00.
Miguel Altuna institutua.
Bigarren kantxa.

ESKUBALOIA

- ◆ **Bergara-Ereintza**
Kadete neskek.
Igandea, 9.45.
Labegarieta kiroldegia.
- ◆ **Bergara-Ereintza**
Jubenil neskek.
Igandea, 11.00.
Labegarieta kiroldegia.

SASKIBALOIA

- ◆ **Bergara-Hondartza**
Kadete neskek.
Larunbata, 12.15.
Labegarieta kiroldegia.

Usue Manterola

Ikusle batek eraso egin zion

Pasa den igandean BKEko jubenil mailako Liga Autonomikoko nesken eskubaloi taldeak Gasteizen Lakuaren aurka jokaturako partiduan, Gasteizko taldeko jarraitzaile batek ukabilkada bat eman zion begian Usue Manterola jokalaria bergararri partidua amaitu ondoren. Ekintza negargarri horri buruz berarekin hitz egin dugu.

- Zenbat urte esku-baloian jokatzen?

- Orain 17 urte ditut eta Ikastolan 12 urte nituenen hasi nintzen esku-baloian jokatzen.

- Zer gertatu zen igandeko partiduan?

- Partiduan zehar jokalarien artean "pikea" izan genuen. Batez ere jokalaria batekin, elkarren aurka jokatzen dugunean oso gogor jokatzen du eta berarekin kokoteraino geunden aurretik ere. Partiduan zehar jokin behar gintuela esaten jardun zuen eta taldekide batekin diskutitzen hasi zen. Halako batean, gure ekipoko batengana hurbildu eta astindu egin behar zuela esaten hasi zen. Hori ikustean gure taldekide bat banatzera joan zen. Orduan ikusle bat hurreratu eta gure taldeko neska lurrera bota zuen. Hori ikusirik banatzera joan nintzen eta begian ukabilkada bat eman zidan mutilak.

- Zer pasatu zen gero?

- Nik ez dakit, partidua amaituta zegoen eta

aldageletarantz gindoazenean arbitroari gertatutakoa esan nion eta berak ez zuen ezer egin, partiduz kanpo gertatu zela eta, ez zuen aktan ezer jarri. Halere, Federaziora kexa bat bidaliko dugu eta epaitegian salaketa jarriko dugu erasotzailearen aurka.

- Zer moduz zaude kolpearen ondoren?

- Orain ondo, baina begi ingurua beltzituta daukat.

- Jokatuko duzu asteburu honetan?

- Niregatik bai, orain

begia nola dagoen ikusi beharko...

- Horrelakorik pasatu zaizue noizbait?

- Ez, bakarrik talde horren aurkako partiduetan pasatzen zaizkigu horrelakoak. Bestela gainontzeko taldeekin, harreman normalak ditugu.

- Gertatutakoa ikusirik eskubaloian jarraitzeko gogorik badaukazu?

- Bai, jarraituko dut. Halere, uste dut horrelako jendeari jokatzea debekatu beharko litzaiokeela.



Begi ingurua beltzituta zuen asteartean Usue Manterolak.

"Erasotzailearen aurka epaitegian salaketa jartzeko asmoa dugu"

Uberarrak

San Pauloak bertan ditugu eta uberarrak protagonista bihurtu zaizkigu aste honetan Erretratu zaharraren txoko honetan.

Goiko argazkia orain dela 40 urte inguruko San Pauloetan ateratakoa da. Gaur egun bezala, orduan ere ekitaldi ugari antolatzen zituzten jaietan eta mozorrotzeko astia ere izaten zuten bertakoek.

Hona hemen argazkian agertzen direnak ezkerretik eskumara.

Zutik: Angel Eguren, Manuel Elexpuru eta Paulo Markiegi.


Makurtuta: Angel Laspiur eta Juan Joxe Laskurain.

Behoko argazkia, ostera, uberar koadrila batek orain dela 25 bat urte Iruñera, San Ferminetara, egindako eskurtsiokoa da.

Bost uberarrak hirira iritsi berriak ziren eta boskote xelebreati argazkia ateratzea bururatu zitzaion norbaiti. Ez dakigu nondik atera zituzten jeepa, panderoa eta tronpeta...

Honako hauek dira argazkikoak:

Esteban Basauri (panderoarekin), Idarreñekua (alkandora zuri eta painelu gorritz agertzen den kapeladuna), Markiegikoa



(aurrekoaren ondoan lepotik helduta dagoena), Juan Jose Laskurain eta Felipe Zezeaga (aurrealdeko biak).

Argazkia: Martin De Pedro



zumelaga
JATETXEA

IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

ZUBIETA
elektragarintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ederTu

BARRENKALE, 23

☎ 76 29 65

BERGARA



Zergekin burutik
eginda bazabiltza,
erabil ezazu geurea
horiek murrizteko.

Izan ere, orain Euskadiko Kutxak sormenean eta eraginkortasunean oinarritzen den Aholkularitza Fiskalerako Plana jartzen du zure esku zeuri ere diru gutxiago ordaintzeko formularik egokiena aurkitzen laguntzeko. Informa zaitez Euskadiko Kutxaren edozein sukurtsaletan edo 901 333 444 telefonora deituta gaueko 10ak arte.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zerga gutxiago ordaintzeko bidea

JAKINA



BAINUAK



ZERAMIKAK



SUKALDEAK

Zure sukaldea edo bainua berritzeko eta amueblatzeko
behar duzun guztia eskainiko dizun
DENDA ESPEZIALIZATUA.

Proiekturik exijenteenari ere aurre egiteko gai den
TALDE PROFESIONALA dugu.

San Lorentzo
Poligono Industrialia.
Amilaga, 10 behea.
BERGARA

JAKINA

Telefonoa: 76 03 30
Faxa: 76 02 91